

EUSKAL PRESOK. Egunetik egunera okerrago dagoela salatu, eta aske uztea galdegin du

«Barandallaren sufrimendua ez luzatzeko» eskatu du Etxerat-ek

Heste butxaduragatik, bederatzitan eraman izan dute kartzelatik erietxeko larrialdi zerbitzuetara

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Bautista Barandalla euskal preso aske uzteko exijitu zuten Etxerat elkarteak, Bautista Etxia plataformak eta Koldo Morras-ek, presoaren konfiantzako medikuak, atzo Iruñean. Barandalla «gero eta larriago» dagoela ohartarazi zuten, duen kolitis ultzeratua gaixotasun larri eta sendaezina «espetxean ezin delako kontrolatu».

Preso etxarriarrari kasik heste lodi osoa kendu zioten

apirilean egindako ebakuntzan. Ebakuntza ondoren, Zaragozako kartzelatik Iruñekora ekarri zuten, baina ez zuten askatu behin-behinean.

Harrezkero, maiz hesteetako butxadurak izan ditu eta erietxeko larrialdi zerbitzuetan bederatzita aldiz ingresatu behar izan dute, sei Zaragozako Miguel Servet ospitalean eta beste hirutan Iruñeko Nafarroako Ospitalean. Azkeneko butxada joan den ostegunean izan zuten presoak. Eri-

MOBILIZAZIOAK

Elkarretaratzeak Iruñean

Bautista etxia Etxarri-Aranazko plataformak presoaren askatasuna eskatzeko urriaren 26tik aurrera kontzentrazio isilak deitu ditu Iruñeko Lurralde Auzitegiaren aurrean. Sakanan heldu den hilabeterako manifestazioa antolatuko dutela aurreratu dute, eguna oraindik zehaztu ez arren.

txera eraman zuten eta han dago.

Eva Sanchez Etxerat elkarte-kideak presoari Espainiako Zigor Kodearen 92. artikulua aplikatzeko eskatu zuen, araudi horren arabera gaitz sendaezina eta kronikoak dituzten presoak behin-behinean aske gelditzeko eskubidea dutelako. Presoa Iruñeko Espetxe Zaintzako epaitegiaren erabakiaren zain dago. Epaitegi horri trami-teak azkartzeko eskatu diote, Barandallaren egoera «oso larria» dela ikusirik.

Aurretik presoak Zaragozako Espetxe Zaintzan gaixotasun kroniko eta sendaezina zuela ikusirik behin-behineko askatasuna eskatu zuen. Alta, epaileak ez zuela aske utziko erantzun zion. Epaileak argudiatu zuen ez zela espero izatekoa aurki hilen zenik. «Presoaren osasun larriak ez du luzapenik behar, eta ezin gaitzke fio ebakuntzaren ondoren bere gaitza kontrolatua dagoela diotenekin», salatu zuen Sanchezek.

Presoari ez zaiola «osasunerako duen eskubidea errespetatzen» deitoratu zuen. Duen gaitz kronikoa kontrolatzea «gero eta zailagoa» dela azpimarratu zuen. Presoaren bizibalditzak «gero eta txarragoak» direla esan zuen, eta «haren sufrimendua ez luzatzeko» eskatu zuen. Etxerat-ek gogoratu zuen 14 euskal preso politiko hil direla kartzelan behar bezalako mediku artatzea izan ez dutelako.

Elkarrizketak alderdi eta sindikatuekin

Presoaren askatasuna aldarrikatzen duen Bautista Etxia Etxarri-Aranazko plataformak hainbat ekimen abiatuko ditu hurrengo egunetan. Hilaren 21ean Iruñeko Espetxe Zaintzako epaitegiko epailearekin bilera dute Etxarri-Aranazko alkate Fernando Floresek, plataformako ordezkariak eta Barandallaren senideek.

Presoaren egoeraren berri emateko eta eskatzeko eska dezaten Nafarroako alderdi politikoekin eta sindikatuekin elkarrizketak hasiko dituzte aurki. Urriaren 26tik aurrera larunbat goizetan Iruñeko Lurralde Auzitegiaren aurrean kontzentrazio isilak egitera deitu dute.

ASKI DA!

Donostiako manifestazio deialdiarekin bat egin du alderdi sozialistak

Erredakzioa | DONOSTIA

Konstituzioa eta Estatutua bai. Derrigorrezko nazionalismorik ez lemapean etzi Donostian egingo den manifestazioan ordezkari izango dutela jakinarazi du Rodolfo Ares PSE-EEko koordinatzaileak. Jesus Caldera Espainiako Kongresuko PSOEren bozeramaleak ere ildo beretik egin ditu adierazpenak, eta PSOE Aski da! erakundeak deituriko manifestazioan egonen dela jakinarazi du. «Herriartasun konstituzionalaren alde eta euskal herritar guztien askatasun eta segurtasunaren defentsan» joango dira hain zuzen ere manifestazioa.

Covite elkarteak ere bertan izango direla adierazi du, «biktima gehienak Estatutua eta Konstituzioa defendatzeagatik izan baitira biktima».

'MATXINATUEN KORRIKALDIA'

Abian ziren bi zutabeek bat egin dute Oartzunen, 250 bat lagunekin

Erredakzioa | DONOSTIA

Euskal Herriak Independentzia eta Inposaketarik ez, Intsumisioa zutabeak banaka abiatu baziren ere, Oartzunen bat egin zuten, eta 250 bat lagunek *Inposaketarik ez Euskal Herriak intsumisioa independentzia!* zutabea eratu zuten.

Euskal Herriak Independentzia zutabea Pasai Antxotik abiatu zen eguerdian, eta Koldo Mitxelena ikastetxean beste lagun batzuekin batu. Guztiek batera Orereta aldera jo zuten gero, bazkaldu eta Oartzunera abiatzeko.

Inposaketarik ez, Intsumisioa zutabea, Andoaindik abiatu zen eta handik Urnietara joan ziren. Hernanin bazkaldu, eta auto karabana batean Oartzunera joan ziren, eta han beste zutabearekin batu.



LANDER F. ARROJABE / ARGAZKI PRESS

Koldo Morras medikua, presoaren aldeko plataformako kideak eta Etxerat elkarteko kideak, atzo.

PRESOAREN OSASUNA

Minbizia eta gibeledko arazoak sor daitezke

Koldo Morras Bautista Barandalla preso etxarriarraren konfiantzazko medikua kezkatuta agertu zen presoak ez duelako ebakuntzan egin ziotenetik garapen ona egin. Azaldu zuen Barandallak gero eta maizago dituen heste butxadurak mekanikoak bilakatu direla eta horrek hesteetako bapateko *peritonitis*-a eragin dezakeela. Hori espetxean gertatuko balitzia heriotza arriskua handia litzatekeela ohartarazi zuen.

Espetxean «behar duen osasun kontrolik eta garbitasunik» ez duenez, presoaren gaitzak ez du hobera egiten. «Berez jada egonkortua egon behar zuen *kolitis ultzeratua* ez da egonkortzen

eta heste butxadurak gero eta maizago gerta dakizkioke», azaldu zuen Morrarek. Iragan apirilean heste lodiarren ia zati gehiena kentzeko egin zioten ebakuntzaren ondoren bederetzita aldiz ingresatu dute larrialdietan hesteak trabatzen zaizkiolako. Berez gaitza kalean eta osasun kontrol egoki eta onekin kontrolatzea zaila bada, kartzelan lan hori ezinezkoa dela azpimarratu zuen Barandallaren medikuak.

Morrarek gogoratu zuen Nafarroako Ospitalean zein Iruñeko espetxean preso artatzen duten medikuek onartu dutela baldintza horietan ezin zaiola behar duen osasun zainketarik eskaini. Presoaren medikuak gaitz sendaezina «larritasun handia» duela esan zuen eta kontrolatzen ez bada, *peritonitis*-a ez eze, minbizia eta gibelean arazo handiak eragin ditzakeela ohartarazi zuen.